

## ASMAKIZUNAK

1. Botilaren muturrean naukazu eta ezinezkoa da edatea, baina ni askatzeko hobe duzu bi ezpainak ongi ixtea. Zer da?
2. Gona luzea du mihia motza, urrutitik entzuten da haren kantu hotsa. Zer da?
3. Kobazulo hori beti dago hezea, hesi zuriz inguratua han bizi da herensugea. Zer da?
4. Zuri-zuri eta biribil, iluntasuna aritzen dabil. Zer da?
5. Uniformedun gudaria zuri eta gorriak, gerra ostean, ordea, buru beltza eta erreak. Zer da?
6. Gorputz mehe eta luze mintzo naiz ahorik gabe. zer naiz?
7. Bi hanka izan arren ezin dugu biderik burutu, baina gizona gu gabe ezin da inon aurkeztu.
8. Aurrean punta bat. Atzean zulo bat. Zer da?
9. Mendian, berde. Zakuan, beltza. Sutan, gorri. Zer da?
10. Bi ama eta bi alaba, ondo zenbatzen baduzu, ez dira lau, hiru baizik. Nor dira?
11. Orratz berezia naiz. Gailurretan naiz nagusi, baina sekula ez dut haizerik josi.
12. Tramankulu honek alaitzen ditu tristeak, etengabe emanaz musika eta albisteak.
13. Ahoa zabaldu dit, begitxoak itxi, lo asko egin ezean, ezin diot eutsi. Zer da?
14. Zotz txikia gainean du gurpila, igarkizun honetan badago pila.
15. Parisko dama garaia XIX. mendean jaio, behetik goraino hezurdura ikusten zaio.
16. Tiro eginda zauririk ez sudurra berriz minez.
17. Berde du azala haragia gorri, beltzak dira berriz, barruko zenbait hazi.
18. Hogeitalau anai-arreba, batzuk egunez, besteak gauez, hogeita lau anai-arreba, jarraian nahitaez.

19. Oso ongi zaintzen dut etxea, ez dut zaunka egiten baina hortzak ditut. Zer naiz?
20. Bi nini doaz parean ezin elkarri begiratzuz.
21. Mahaira atera ohi dira ez da jaten ezta edaten, bai ,ordea, ebaki eta banatzen.
22. Denek zapaltzen naute baina nik ez dut inor zapaltzen. Denek galdetzen dute non nagoen eta nik ez dut galdetzen non dauden.
23. Aita zabala, bera arina; batzuetan zaratatsu, askotan negartsu.
24. Inoiz ikusten ez, eta nonahi firi -firi, inola harrapatzerik ez, eta bera gabe ezin bizi.
25. Aldrebez naiz, neguan biluzik eta udan arropaz beteta.
26. Agertu eta desagertu, desagertu eta agertu, kalean daramat nigandik gertu. Zer da?
27. Baginela eta bagara, bi anaia bikiak; gu aurrean jarrita hobeto ikusiko dituzu gauza guzti-guztiak.

**Erantzunak:**

- |                          |                   |
|--------------------------|-------------------|
| 1. B letra               | 15. Eiffel dorrea |
| 2. Kanpaia               | 16. Puzkerra      |
| 3. Ahoa                  | 17. Sandia        |
| 4. Ilargia               | 18. Orduak        |
| 5. Pospoloak             | 19. Giltzak       |
| 6. Boligrafoa            | 20. Begia         |
| 7. Prakak                | 21. Kartak        |
| 8. Orratza               | 22. Bidea         |
| 9. Ikatza                | 23. Zerua         |
| 10. Amona, ama eta alaba | 24. Haizea        |
| 11. Haize – orratza      | 25. Zuhaitza      |
| 12. Irratia              | 26. Itzala        |
| 13. Logura               | 27. Betaurrekoak  |
| 14. i letra              |                   |